

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Zer munduren gerra?

AEB, 1938KO URRIAREN 30A. Milioika estatubatuar *Chase and Sanborn Hour* NBCko irratsaio arrakastatsua entzuten ari ziren. Saioa hasi eta hamabost minutura etenaldia egin zuten, eta entzule askok dialari eragitea erabaki zuten. Horietako batzuek CBS katea aukeratu zuten eta une horretan albistegi harrigarria entzutea egokitu zitzairen: estralurtarrak New Jerseyko parke batean lurreratu berri ziren.

Berez, albistegia fikziozkoa zen, ordubeteko irratsaioaren zati bat baino ez. *Mercury Theatre on the Air* saioan H.G. Wells-en *The War of the Worlds* nobelan oinarritutako irrati-nobela ematen ari ziren, Orson Welles zuzendari eta esatari zela. Wellesek, nobela moldatzean, albistegi forma ematea erabaki zuen. Besterik ez.

Baina irratsaioaren hasiera entzun ez zuten askok egiazat jo zituzten esandakoak, ziur aski Wellesen proposamena oso berritzailea eta ezustekoa zelako garai hartako irratian, eta milioika pertsona izuak hartu zituen. Hori esan zuten, behintzat, urriaren 31ko egunkarietako titularrek. Gaur artean frogatu gabeko datuen arabera, sei milioi lagunek entzun zuten gau hartan CBSko saioa, horietatik 1,7 milioik egia zela pentsatu zuten, eta 1,2 milioi "benetan izutu" omen ziren –garai hartan NBC kateak



Orson Welles
CBS irrati
*Mercury
Theatre on the
Air* saioan
lanean.

30 milioi entzule zituen batez beste—. Hurrengo hilabetean, AEBetako prentsan 12.500 artikulua argitaratu ziren gaiari buruz. Eta Adolf Hitlerrek berak gertakaria hitzaldi batean aipatu zuen, demokraziaren gainbeheraren eta ustelkeriaren froga gisa.

Gertaera gerora aztertu duten hainbat historialarik, ordea, bestelako gerra ikusi dute *Munduen gerraren* atzean: komunikabideen arteko gerra. Robert E. Bartholomew-ren ustez, herrialde guztian herritar gutxi batzuek baino ez zuten jokatu egunkariak deskribatutako histeriaz. Gerora frogatu ahal izan da polizia komisaldegietan ohikoa baino dei gehiago jaso zituztela irratiak esandakoa egia ote zen galdetzeko. Baina badi- rudi izua horretara mugatu zela.

Irratia euskarri berria zen, eta idatzizko prentsarentzat mehatxu larria zirudien, entzule kopurua egunetik egunera hazten ari zela kontuan hartuta. Hortaz, egunkariak konpetentziari eraso egiteko aukera baliatu zuten, eta anekdota puztu.

Baina Orson Wellesi behintzat ez zioten kalterik egin. Bere ospea izugarri hazi zen, Hollywoodetik eskaintza ugari jaso zituen eta, hiru urte geroago, prentsaren handiki baten istorioa kontatu zuen *Citizen Kane* maisu lanean.

Arrastoak

Germania, uste baino erromatarragoa

BRONTZEZKO ZALDI BURU BAT aurkitu du Frankfurtoko Unibertsitateko arkeologo batek pasa den abuztuan. K.o. 9. urte inguruan datatu dute eta erromatar garaiko brontzezko eskulturen artean hobekien gorde denetako bat da, Friedrich Lüth Arkeologia Institututuko arduradunaren esanetan. Erromatarren garaian Magna Ger-

mania zeritzan eskualdean aurkitu dute buru hau, beste 100 pieza ingururekin batera, eta Augusto enperadorearen eskultura baten zatia izan litekeela diote. *Science* aldizkariaren arabera, aurkikuntzak frogatzen du erromatarrek Germaniako inguru horretan orain artean uste baino eragin handiagoa izan zutela.

